

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak 105 milioi euro aurreztuko ditu 12 urtetan, birfinantzatzeko eragiketetan

Foru Komunitateak Autonomia Komunitate bat 20 urteko epean finantzatzeko kosturik baxuena lortu du

Asteazkena, 2018.eko maiatzak 16

Nafarroako Gobernuak maiatzean itxi ditu lau finantza-erakundek zorra eta maileguak birfinantzatzeko emandako zenbait [eragiketa](#), eta, era horretan, foruaren diru-kutxan 8,6 milioi euro aurreztuko ditu urtean, batez beste 12,3 urteko denboraldian. Beraz, guztira 105 milioi euro aurreztuko ditu denboraldi horretan.

Horrela jakinarazi du Ogasun eta Finantza Politikako Mikel Aranburu kontseilariak, Gobernuak gaur, asteazkena, egin duen bileran. Aranbururen arabera, eragiketa "arrakasta izan da, Nafarroak finantza-arloan duen sendotasuna eta merkatuei ematen dien konfiantza erakusten baititu". Horrez gain, kontseilariak adierazi du "Foru Komunitatea dela 20 urteko eperako finantzaketa hain baxua lortu duen bakarra", finantzaketa-prozesuaren kanpo-balorazioan Nafarroari helarazi dion moduan.

Zehazki, Nafarroako Gobernuak 206 milioi euroko finantzaketa-premiak bete ditu, batez beste %1,3ko tasarekin, finantzatuta zeuden % 5,49ren aurrean, eta batez beste 12,3 urteko bizitzarekin. Lau finantza-erakunderekin egindako eragiketetan, epe ezberdineko maileguak eta bonuak sartzen dira, 6,5 urtetik 19 urtera bitarte; baita ere, Altxorraren gaineko diferentzial ezberdinekin egindakoak, eta tartean aipatu behar dira Kutxabank-en mailegu bat, altxorraren gaineko diferentziala oinarritzko 5 puntu gutxiagorekin, eta beste bat Banco Sabadell-ekin, altxorraren azpitik oinarritzko puntu batekin.

Bederatzi finantza-erakundek egindako eskaintzen bitartez, guztira 722 milioi euro lortu dira, hau da, estali beharreko premiak hiru bider gehiago gainditu dira, eta, kontseilariaren arabera, hori Nafarroaren finantza-kaudimenaren beste seinale bat da.